



BARREN  
TOKIKOM

# Aurten, jai





2001eko urtarrilean zabaldu zuen atea estreinakoz Farmazabal Parafarmaziak, Azpeitian. 19 urte pasatu dira ordutik, eta Amaia Zabalak, elgoibartarra izanda, Elgoibarren parafarmazia zabaltzea erabaki du. Koronabirusaren pandemiak bete-beteen harri-patu zuen, eta apur bat atzeratu behar izan du irekiera, hala ere.

## Amaia Etxaniz eta Amaia Zabala



**“Oso pozik gaude elgoibartarrek egin diguten harrerarekin”**

### ● Noiz sortu zenuen Farmazabal?

2001eko urtarrilean zabaldu zuen atea Farmazabalek Azpeitian. Hasieran, bilakaera azkarra izan nuen herritarren beharrei erantzuna emateko eta horrela jarraitu dut proiektu honek gorputza hartu duen arte. Hemeretzti urteren ondoren proiektua zabaltzea erabaki dut.

### ● Zergaitik aukeratu duzu Elgoibar?

Ni neu elgoibartarra naiz, eta nire herria iruditu zitzaidan bigarren parafarmazia zabaltzeko lekurik aproposena. Oso pozik nago elgoibartarrek egin didaten harrerarekin, eta gustatuko litzaidake Azpeitiakoak bezala, Elgoibarko proiektuak ere luze irautea.

### ● Nola eragin dizue koronabirusak?

Inor ez zuen hau espero eta guk ere ez genuen horrelakorik aurreikusten. Covid-19ak bete-beteen harri-patu gaitu. Hasiera ez da erraza izan, baina lanerako gogoz eta ilusioz nago. Gaur egun Farmazabalen hiru langile gaude: Maite, Amaia eta ni neu. Gure lanbidean eguneratuta egoteko ikastaro desberdinetan parte hartzen dugu. Horrez gain, merkaturatzen diren produktu berriak gure dendan edukitzeko ahalegina egiten dugu, eta horretarako azoka ezberdinetara joaten naiz. Bezeroei aholku egokiak ematea da gure nahia, eta horretarako emaitzen jarraipena egiten dugu. Bezeroaren asebetetze mailaren berri jasotzen saiatzen gara uneoro.

### ● Zer eskaintzen duzue?

Farmazabal parafarmazian dermokosmetikak dauka indarririk handiena: Vichy, La Roche Posay, SVR, Avene, Uriage, A-Derma, Ducray, Sensilis, Rilastil, Klorane, Ses Derma, Galenic, Caudalie, Filorga, Cantabria Labs, Nuxe, Isdin, Laboratorios Leti, Beiendorf... etxeetako produktuak erabiltzen ditugu. Horrez gain, umeentzako elikagaiak eta osagarriak ere aurkitu daitezke gurean. Covid-19 dela-eta, maskara



**“Bezeroei aholku egokiak ematea da gure nahia, eta horretarako emaitzen jarraipena egiten dugu”**

mota desberdinak saltzen ditugu, gel hidroalkoholikoak, eskularruak... Maskaren kasuan, hiru motatakoak ditugu: kirurgikoak, FFP2 motakoak eta berrerabili daitezkeen kirurgiko higienikoak. Maskara mota guztiak dituzte beren zertifikatuak. Dermokontseilariak etortzen zaizkigu Farmazabalera urtean zehar, baina guzti hori geldituta dago momentuan, Covid-19 dela-eta.

  
Bernardo Ezenarro 2, behea 1 - Elgoibar  
Asteleheneretik ostiralera 9:30-13:00 eta 16:30-20:00  
Larunbatean 9:30-13:00  
Abuztuaren 1etik 14rarte goizez bakarrik,  
9:30-13:00 arratsaldez itxita.  
Abuztuaren 17tik 31rarte itxita

**%10eko deskontua**  
Txartel hau moztu eta farmazabalera ekarri zere erosketan %10eko deskontua lortuko duzu, erosketa bakoitzeko eta pertsona bakoitzeko boleto bakarria erabili daiteke, ezin dira bestelako beharapenei gehitu.  
**Abuztuaren 14ra arte baliogarria.**  
943 539 731    688 872 398

### PELLO RODRIGUEZ, DanobatGroup

*“DanobatGroup osatzen duten kooperatiba gehienek dagoeneko erabaki dute Euskaraldian parte hartzea”*



♦ **Zer moduz zaudete? Nola eragin du koronabirusak DanobatGroupen?**

Gizarteari, oro har, eragin dion antzera: egiteko modu ezberdinak ikasi ditugu, telelanean aritzeko pausoak eman ditugu, babes neurriak normaltasunez erabiltzen ditugu...

♦ **Badaukazue Euskaraldiari kasu egiteko astirik? Emango dute izena DanobatGroup-eko kooperatibek bigarren edizioan?**

Bai, DanobatGroup osatzen duten kooperatiba gehienek dagoeneko erabaki dute Euskaraldian parte hartzea: DanobatGroup, Danobat, Ideko, Goimek eta Soraluçek momentuz. Gainerakoek uztailean zehar hartuko dute erabakia. Euskaraldian parte hartzea erabaki organoetan adostu dute, eta orain, *ariguneak* sortzeko lanean dihardute Euskara Batzordeek.

♦ **Elgoibarko Euskaraldia Taldeko kidea ere bada Danobat-Group, eta diruz ere laguntzen du ekimena. Zergatik erabaki zenuten egitasmoa diruz laguntzea?**

Kooperatiba moduan dugun gizarte erantzukizunari begira, euskara sustatzeko ekimen interesgarritzat jotzen dugulako laguntzen dugu diruz ekimena.

♦ **DanobatGroup-eko kooperatibetan zein da gehien entzuten den hizkuntza?**

Langileen euskara-ezagutza maila altua da DanobatGroup-en: Kooperatiba guztietakoa kontuan hartuta, %83koa, hain zuzen ere. Erabilerari dagokionez, datua jaitsi egiten bada ere, ahozko harreman formal zein informaletako erabileraz gain, ahalegin berezia egiten ari gara bileretan ere euskararen erabilera gehitzeko, horretarako helburuak jarritz eta neurketak eginez. Dena dela, euskararen erabilera DanobatGroup-eko kooperatibetan idatzizkora eta tresna informatikoetara ere zabalitzen da. Azken batean, lana euskaraz egitea izanda helburua, horretan laguntzen diguten neurri eta baliabideak ditugu eta poliki-poliki helburuak lortzen ari gara.

♦ **Besterik gehitu nahi duzue?**

2018an DanobatGroup-en Euskaraldiaren inguruan ariketa propioa egin genuen, eta, kooperatiba guztien artean langileen %54k hartu zuten parte. Erronka handia litzateke horretara iristea, baina ahalegina egiteko prest gaude.

### JOSE RAMON ZABALA, Arrizabal Elkartea

*“Euskara gure hizkuntza da, eta Euskaraldia bezalako ekimenek bultzada ematen diotelakoan nago”*



♦ **Zer eragin izan du COVID-19ak Arrizabal Elkartean?**

Osasunez ondo gaude denok. Lanari dagokionez, hainbat enpresari ematen diegu zerbitzua, eta horietako batzuk, kaleak garbitzekoak esaterako, behar beharrezkoak direnez,

lanean aritu gara. Hor izan gaituzte behar izan

dutenean. Hala ere, atzeraldi handi baten sartu gara, eta krisi ekonomikoaren eragina igarri dugu gurean ere.

♦ **Baduzue Euskaraldiari tarte bat eskaintzeko aukerarik ala burua beste kontu batzuetan duzue?**

Egia da koronabirusaren eraginez garai zailak bizi ditugula eta une honetan burua beste toki batean daukagula. Ez dira momenturik onenak guretzat, baina Euskaraldia heltzen denean seguru tarte bat edukiko dugula ekimenari eskaintzeko.

♦ **Arrizabal elkartean zein hizkuntza da nagusi?**

Gure artean euskara da nagusi. Bederatzi langile gara, eta horietatik zortzi, euskaldunak. Lankide bakarra daukagu euskaraz ez dakiena; beste guztiok euskaraz hitz egiten dugu gure artean, eta bezeroekin ere gehiena euskaraz egiten dugu. Gure bezeroak Udalak eta erakunde publikoak dira bereziki, eta horiek euskararako protokoloak dituzte. Haiekin idatzizkoan ere euskara da nagusi. Enpresa pribatuekin desberdina da harremana, baina arlo horretan ere euskararako joera hobetzen doala iruditzen zait.

♦ **Hartuko duzue parte Euskaraldiaren bigarren edizioan?**

Baietz uste dut, baina irailerako lotu dugu hitzordua Euskaraldia Taldekoekin, eta azalpenak entzun ondoren hartuko dugu erabakia. Hasteko, Arrizabal moduan izena eman ala ez erabaki beharko dugu, eta parte hartzea erabakitzen badugu, gero langile bakoitzak erabakiko dugu zein rol bete nahi dugun aurtengo edizioan. Dena dela, gure bulegoan urte osoan egiten dugu euskaraz, guretzat Euskaraldiak urte osoa irauten du.

♦ **Zer iruditzen zaizkizu honelako ekimenak?**

Euskaraldia bezalako ekimenak oso ondo daude. Euskara gure hizkuntza da eta Euskaraldia bezalako ekimenek bultzada ematen diotelakoan nago, eta beharrezkoak ikusten ditut.





## IBON SERRANO LASA

Ingeniaria

*“Euskal Herritik arras hurbil eta merke izan dugu aukerarik askatasun apur batez gozatzeko”*

Aurten, distopia-apokaliptiko honek dena zapuztu arte, 50 urte betetzearen aitzakiaz bidai bat geneukan buruan haurtzaroko bi lagunek eta nik. “Anormalitate” berrira moldatzeko, gure bidaia egokitu behar izan dugu, eta zorionez, emaitza benetan ederra izan da.

“Beti-gazte” sentsazio hutsal batez akuilatuta, ekainaren 22an abiatu eta ia bi astez izan gara txirindaz ibilbide ludiko inprobisatu bat eginez Errioxa, Burgos eta Soriako lurralde zabaletatik zehar. Zakutoetan generaman beharrezko ia guztia eta behin etapa bukatu eta erreka (orain ez horren) garbietan bainatu ondoren, mila izarren zerupetan oheratu gara gauero Ebro eta Duero ardoak eta txintorta “serranoak” oparo dastatuta.

Izan izan dira pentsarazi dizkiguten ikuspegi goibel xamarrek; batik bat landa eremu eta herrien huste eta uztea, biztanleria urriaren zahartze eta itxaropen gabezia, egungo egoerarekiko eta etorkizunarekiko ikara. Fun-tsean, eratu dugun (edo erarazi diguten) sistema ekonomikoaren ondorio eta kalteak haragi bizitan.

Nolanahi ere, itxialdiak eragin duen naturaren berpizteaz liluraturik eta zorabiatuak izan gara bidaia osoan, sentimendu honek aise gainditu duelarik beste edozein. Gainera, nire bi adiskideen “Zorion Iturriko Rodrigoena”-ren gisako ezagutza zabalari esker, gozamen bikoitza izan da. Zuhaitz eta landaretza mota, animalia, hegazti, perretxiko, laborantza, barazki, fruitu desberdinak identifikatzen aurrerapenak egin ditut (denak ahaztuko zaizkidan arren); pena horren ezagu-

tza oinarrikoak horren alboratuak izatea gaur egun teknologia berrien eta pantailen mesedetan.

Hau dena, gehienetan eguraldi bikaina lagun, Iberiar sistemako eta goi mesetako errepide bakarti, luze eta lasaietatik pedalei eraginez. Egitan, Far-Westeko zaldun mekanikoen gisara sentitu gara, ez balitz bidaia are xarmentagoa bihurtu duten historiaz beteriko herrixka, eliza, gaztelu, gotorlekuen presentzia jarraituagatik eta herritar xumeen abegikortasunagatik.

Beraz, garai zimur hauetan, betiere gure pribilegiatu egoera onartuta, Euskal Herritik arras hurbil eta merke, izan dugu aukerarik askatasun apur batez gozatzeko eta etorkizunera begira indarberritzeko. Opor on eta jasangarriak opatuaz agurtzen natzaizue!



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloea Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ MALAKO JAI BATZORDEAK ELGOIBARKO HERRIARI

Bizi dugun osasun egoera larria kontuan hartuz, arduraz jokatzeari dagokigu, eta aurtengo San Bartolomeetan Gune Askeko jai herrikoiak ez antolatzea erabaki dugu. Izan ere, ezinezkoa zaigu beharrezko segurtasun neurriak betetzea. Hala ere, badugu poz txiki bat: Elgoibarko Sebas Etxanizi 3. gradua eman baitiote. Ongi etorri, Sebas! Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi erbestean dagoen losu lariz. Ia datorren urteko jaietan Gune Askean denok elkarrekin egoteko aukera dugun. Bitartean Malako Jai Batzordeak lanean jarraituko du, datorren urteko jai herrikoiak antolatu asmoz.

**Malako Jai Batzordea**

### ▶ 2020KO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK ETA ELGOIBARKO EMAITZAK

Abstentzioa, normala den bezala, ohi baino dexente handiagoa izan da, baina Elgoibarren, txikiagoa: EAEn, %47koa; Elgoibarren, %43koa.

Kontuan izan behar dugu Elgoibarren abstentzioa %30etik gorakoa izaten dela azkenaldian eta horrek suposatzen duela

2.600 lagunetik gorako abstentzio iraunkor bat. Ez al du zer pentsa ematen?

Nor abstenitu da gehiago? Ezker eta eskuin ardatzen arabera, PNV gehi eskuin espainolak batera 475 boto galdu dituzte (288 PNVk, eta 187, eskuin espainolak). Ezker ardatzean galera 142 boturena izan da, eta guztiak Podemosekoak, izan ere PSEk eta Bilduk gora egin dute bototan.

Podemosek 337 boto galdu ditu, eta Bilduk (134) eta PSEk (61) irabazi egin dute. Beraz, badirudi ezkerrearen baitan berrosaketa dagoela.

Joera orokorrekin (EAEkoekin) alderatuz gero, PNV/ PSE ardatzak botoen %52,7 biltzen ditu. Elgoibarren, ardatz horrek %54,1 biltzen ditu. Ezker ardatzari dagokionez (gaur egun ezinezkoa), Bildu/Podemos/PSEk botoen %49,4 biltzen ditu EAE mailan. Elgoibarren, berriaz, ardatz horrek %52,4 biltzen ditu.

PNV/PSE ardatzak jarraituko du bai EAEn zein Elgoibarren, eta ekonomia krisi gogorra dator: horrek beti dakarkiko sufrimendu handia langileari, erabiltzen diren politikak beti boteretsuen mesedetan egiten direlako. Zerbitzuak, Udala-

ren dirua eta soldatak, eskasagoak, eta lan orduak, prekarietatea, eta langabezia, handiagoa. Eskerrak pentsiodunen mugimendua dugun herrian, ez pentsioen igoera bakarrik exijituz, zerbitzu publikoen defentsa eginez ere bai, eta sindikatuarekin batera lana, soldata eta pentsio duinak eskatuz. Aupa zuek!

**Juan Mari Mendizabal Alberdi**

### ▶ ADI SARE SOZIALEI!

Covid-19aren ondorioz XXXIV. Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia bertan behera uztea erabaki dugu denon osasuna bermatzeko. Dakizuenetz, horren ordean Elgoibarko erakusleihen ezberdinak apaindu ditugu 33 urte hauetan zehar ikusgai egon diren jaialdi guztiekin. Bestalde, ostiralean, hilak 24, gaueko 22:30erako sorpresa bat prestatu dugu HEDTko kideok: emanaldi txiki bat eskainiko dugu geure sare sozialen bitartez. Emanaldia Haritz Euskal Dantzari taldeko youtubeko kanalean, Facebooken eta Instagramen egongo da ikusgai gaueko 22:30ean. Egon adi gure sareei eta ez galdu aukera!


**HARITZ DANTZA TALDEA**



## Luis Maria Fuente Martinez

2020ko uztailaren 18an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Quiscedotik Kantauri itsasoaren magalera  
jakin gabe zer izango zan,  
famili haundixa sortu ziñuan.  
Beti izango zera gurekin. Gugan bego.**



## Elgoibarren eta Mendaron ere bertan behera laga dituzte Udalekuak

COVID19-az kutsatutako kasuen gorakada dela-eta, neurriak zorroztea erabaki zuten asteburuan Osasun Sailak, eta besteak beste, udalekuak "aldi baterako" bertan behera lagatzeko eskatu zien zapatuan udalei. Eudelekin batera hartutako erabakia izan zen, eta hala egitea erabaki zuten Elgoibarko eta Mendaroko udalek ere. Elgoibarren, Udalak eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika taldeak antolatu dituzte elkarlanean udalekuak, eta Mendaron, Udalak antolatu ditu, baina Elgoibarko Izarrak kudeatu ditu. Jaurlaritzaren aginduak biei eragin die, eta astelehenaz geroztik etenda daude udalekuak bi herrietan.



### Pasabideak ipinita aurrera doaz Elgoibar eta Eibar lotuko dituen bidegorriko lanak



Une erabakigarrian daude Eibar-Maltzaga bidegorri zatiko lanak. Bost pasagune izango ditu Maltzagan, horietako bi 80 metro luzeko zubiak, eta dagoeneko ipini dituzte bere lekuan. Fase honetan, Elgoibarren jada eraikita dagoen bidegorri-zatiarekin bat egin behar du Eibar-Maltzaga bidegorri zatiak. Deba ibai gainekoa joan den eguaztenean, uztailearen 15ean, ipini zuten. Elgoibarko bidegorriaren amaieratik Maltzagan ipini duten zubiaren hasierara arteko zatia ere eraikita dago. Era berean, Ego ibaia gaintitzeko 80 metro luzeko pasabidea joan den ekainaren 28an ipini zuten. Hainbat hilabetetako atzerapenaren ostean, 2019ko azaroan hasi zituzten Azitain-Maltzaga bidegorria egiteko lanak, Eibar eta Elgoibar lotuko dituen ia bi kilometroko oinezkoentzako eta bizikletentzako bidegorri-tartea. 5,1 milioi euroko aurrekontua dauka obra honek.

### 36ko gerrako lehegailua atera zuten Ertzaintzak joan den barikuan San Frantzisko kaleko ganbara batetik

San Frantzisko kaleko 53. atarian etxea erosi berri duen bikote batek gerra garaikoa izan zitekeen lehegailua topatu zuten joan den barikuan ganbara garbitzen ari zela. Lehegailuak indargabetzeko Ertzaintzako teknikariak bertaratu ziren, eta era honetako egoeretarako ezarrita duten protokoloa ezarri zuten berehala: Maalako parkerako sarbideak itxi zituzten eta 53. zenbakiko bizilagunak etxeetatik atera zituzten, badaezpada, 16:00ak inguruan. Elgoibarko Udaltzaingotik azaldu zutenenez, 80 bat zentimetro inguruko pieza bat aurkitu zuten eta lehegailu teknikariek eurekin eraman zuten 36ko gerrako lehegailua den egiaztatzeko. Elgoibar 1936 taldekoek emandako datuen arabera, 36ko gerran erabilitako 81mm-tako Valero morteroa da ganbaran aurkitu duten arma.



Arg.: Borja Aranzabe

## Elgoibarko Udalak 2020ko aurrekontuan aldaketak egin ditu koronabirusak eragindako egoera berrira egokitzeko

**E**guaztenean egindako osoko bilkuran adostu zuen Elgoibarko Udalak 2020ko aurrekontuak egoera berrira egokitzeko. 18,79 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Udalak iazko azaroan aurtengorako, baina koronabirusaren krisia dela eta, 1,8 milioi euro murriztu behar izan ditu. Beraz, ekitaldi honetarako azken zenbatekoa 17 milioi eurokoa izango da. EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zuten aldaketa hau. EHBildu eta Elkarrekin Podemosek kontra bozkatu zuten.

Udal Gobernuak azaldu duenez, elgoibartarren ongizatea bermatzeko gastu soziala lehenestea ahalbidetuko duten aldaketak egin dituzte, eta esan dute gizarte zerbitzuetako partida bakar bat ere ez dutela murriztu; "are gehiago, gizarte larrieldietarako laguntzak 100.000 euro handitu dira". Aurreikusitako gabeko beste gastu batzuei dagokienez, gogoratu dute aurten 175.000 euro bideratuko direla udalerriko merkataritza eta ostalaritza suspertzeko. Halaber, onartutako kontu berrietan ondorengoak jaso dituzte, besteak beste: gazteentzako alokairurako laguntzak (50.000 euro), kaleen garbiketa (531.228 euro), fatxadak berrietzeko laguntzak (75.000 euro), Inazio Bereziartua Musika Eskolarentzako ekarpenak (477.757 euro), igogailuen mantentzea (15.000 euro), hondakinen bilketa (1,6 milioi euro).

Kontuen egokitzapen hau egiteko aurrekontuaren kreditu batzuk ez erabilgarri bezala izendatu dituzte: Herriko Antzokiko kamerinoak (55.000 euro), aire zabaleko zinema (22.400 euro), auzoetako jaiak (5.000 euro), salmenta telematikoa (13.000 euro), mugikortasun astea (28.900 euro), publizitatea (38.683 euro), komunikazio instituzionala (15.000 euro), protokoloak (20.000 euro), herritarren parte-hartzea (200.000 euro), EPA (30.000 euro)...

### Oposizioa kontra

EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek aurrekontuen aldaketa honen kontra bozkatu dute. EHBilduk esan du "zementoaren aurrekontuak" izaten jarraitzen dutela. "Udal gobernuak pertsonak erdigunean ipini eta aurrekontu sozialak mahaigaineratu dituela esan du, baina guk ez dugu irakurketa hori egiten. Aurrekontuen %42 hirigintzari bideratzen jarraitzen dugu, %5.77 denean gai sozialetara bideratzen dena". Horrez gain, aldaketa hauek egiterakoan informaziorik ez ematea leporatu diote Udal Gobernuari. Elkarrekin-Podemosek ere "gardetansun falta" nabarmendu du eta euren proposamenak aintzat ez hartzea leporatu dio Udal Gobernuari.

## Elgoibarko eta Mendaroko eguneko zentroak itxita daude eta San Lazaro egoitzan bisitak murriztu dituzte

Azken egunetan Debabarrenean atzemandako koronabirus kasuengatik, Elgoibarko, Mendaroko eta Eibarko eguneko zentroak ixteko agindua eman zuen joan zen barikuan Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta ordu batzuetara agindu hori erkidego osora zabaldu zuen Jaurilaritzak. Itxialdia astebeterako izango zela iragarri zuten hasiera batean, baina momentuz itxita jarraitzen dute. Maite Peña Gizarte Politiketako diputatuak esan zuen "Zarauzko makrojaiaren harira" kasu asko ari direla baieztatzen Debabarreneko gazteen artean eta horrek behartu zituela zentroak ixtera, "badaezpada". Era berean, zaharren egoitzetako bisitak berriro murriztu dituzte.

## Jabi Muñoz gailendu zen 17 lagun eta ordenagailuaren kontrako aldi bereko xake partidetan



Mendaroko Otarre xake taldeak bi jarduera antolatu zituen joan den asteburuan Mendaron. Batetik, barikuan, aldi bereko partidaren erakustaldia egin zuten Herriko Enparantzan. Otarreko kidea den Jabi Muñoz 17 xakelariren aurka lehiatu zen, eta baita ordenagailu programa baten aurka ere. Muñozek 18-0 irabazi zuen. Bestetik, zapatu goizean, Mendaroko II. Xake azkarreko txapelketa jokatu zuten, Herriko Enparantzan bertan. Partida bakoitzak 5 minutu eta hiru segundoko iraupena izan zuen eta bederatzi xakelari lehiatu ziren. Aurreko egunean moduan, Jabi Muñoz gailendu zen, 9 puntu eskuratuta. Mikel Fidalgo sailkatu zen bigarren postuan, 8 punturekin eta Eñeko Egañak egin zuen hirugarren, 7 punturekin.

## 256 koronabirus kasu antzeman dituzte azken astean Debabarreanean, horietatik 14 Elgoibarren

Uztailaren 15etik uztailaren 21era bitartean nabarmen egin dute gora koronabirus kasuek Hego Euskal Herrian, eta gure eskualdea ez da salbuespena izan. 256 positibo antzeman dituzte azken aste honean Debabarrenean, eta horietatik 14 Elgoibarren. Asteazkenera arteko datuak hartu ditugu kontuan, eta egun horretan ez zen positiborik izan gure herrian. Ermuan eta Eibarren baiez-tatu dira kasu gehien gure eskualdean. Ermuan, esaterako, egun bakarrean 48 kasu zenbatu zituzten, eta azken astean 121 positibo izan dituzte guztira. Eibarren ere asteburuan egin zuen gora koronabirus kasuen kopuruak; azken astean, 104 positibo zenbatu dituzte Eibarren. Koronabirusari lotuta, King-Kong taberna itxi egin zuten joan zen astean badaezpada, zerbitzarietako baten alabak positibo eman zuelako PCR proban. Zerbitzariak negatibo eman zuten, baina, gero PCR proban, eta zapatuan zabaldu zuten berriro.

### Gararock musika jaialdia bertan behera laga dute

Gararock jaialdiaren antolatzaileek eta Mendaroko Udalak jaialdia bertan behera lagatzea erabaki dute. "COVID 19 testuingurua eta hortik ondorioztatzen diren osasun neurriak ez dira bateragarriak gurea bezalako jaialdi batekin. Edukiera mugatzea, kontrolatzea, jendea eserita eta bereizita dagoen formatu bat ez da Gararock", esan dute. Bosgarren edizioa izango zen aurtengoa.

### Gaurgeroa-Duintasuna anbulatorioko murrizketen kontrako mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, baina ez zuen aurrera egin EAJk eta PSEk kontra bozkatu zutelako

Gaurgeroa-Duintasuna pentsiodunen taldeak herriko beste hainbat eragileren babesarekin, anbulatorioko murrizketen kontrako mozioa aurkeztu zuten eguazteneko osoko bilkuran EHBildu eta Elkarrekin-Podemos alderdien bidez. Mozioan jasotzen zuten Elgoibarko anbulatorioan murrizketak egin dituela Osasun Sailak. Lehen 24 orduko arreta ematen zuten anbulatorioan, gero gauerdia artekoa eta orain arratsaldeko 17:00etan ixten dute. Horrez gain, telefonoz ematen dute zerbitzua, eta aurrez aurreko zitak asko gutxi direla salatu dute. Mozioan eskatzen zuten murrizketak eten eta berriz ere 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzeko eta ESiko langileen lan baldintzak errespetatzeko. Mozioak ez zuen aurrera egin, EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zutelako. EAJk argudiatu zuen Osasun Sailak hartutako neurriak ez direla murrizketak, baizik eta baliabideen egokitzapena izan dela. EAJk esan zuen osasun krisia gainditzen denean dena normaltasunera itzuliko dela. Era berean, horrelako osasun krisi egoera batean gai honi "erabilera politikoa" egitea ez dutela onartuko gaineratu zuten. Bukatzeko, babesa eta esker ona adierazi zieten elgoibartarren alde osasun zerbitzuetan lanean ari diren profesionalai.

### Beste 6.000 urtean ikusiko ez dugun Neowise kometaren argazkia egin du Vicente Guineak



Vicente Guinea argazkilari elgoibartarrak Neowise kometa harrapatu zuen argazki kamerarekin. Udako fenomeno astronomikoa dela diote adituek, eta horrelako irudirik ez dela errepikatuko 6.000 urte igaro arte. Neowise kometa joan den uztailaren 7tik ikus daiteke zeruan. Uztailaren 16az geroztik ilunabarrean ikusi daiteke, eguzkia ezkutatu eta ordubetera. Fenomeno astronomiko hau uztailaren 31ra arte ikusi ahalko da. Vicente Guineak joan den asteburuan atera zion argazkia kometa honi. Arratera joateko bide zaharraren ertzean dagoen Santa Kurutz ermitaren ondotik atera zuen, argi kutsadura gutxi dagoen lekua izatea komeni dela-eta. Tripodea erabiliz, espazio luzeak eginez lortu zuen kometa harrapatzea, eta kometa-rekin batera, zenbait Perseida ere harrapatu zituen.



## Aurten ez da San Bartolome jairik egongo



Hilabete falta da San Bartolome egunerako, eta gaur bertan eman dute Udaleko arduradunek eta herriko hainbat eragilek prentsaurrekoa, aurten San Bartolome jairik ez dela egongo esateko. Udalak hainbat bilera egin ditu herriko eragileekin aurtengo sanbartolomeetan zer antolatu zitekeen aztertzeko, eta bilera horietan parte hartu zuten eragileekin adostu zuten aurtengo jaietarako egitaraua murriztea. Azken astean, baina, koronabirus kasuak nabarmen igo dira Debarrenean, eta hilabete barru egoera zein izango den jakiterik ez dagoenez, jaiak bertan behera lagatzeko erabakia hartu dute. Gure Bide elkarteok ere aste honetan jakinarazi dute Etxaniz Memoriala bertan behera laga dutela. Hala ere, ekintza gutxi batzuk izango dira sanbartolomeetan, jaiak gogoratzeko.

### Abuztuak 23, San Bartolome bezpera

- ◆ Irailaren 7ra arte, Edu Arrillagaren *Photo kalean* argazki erakusketa. Alde zaharrear sokamuturrean ateratako argazkiak jarriko ditu ikusgai eta Errosario kalean Txiki Egune-koak.
- ◆ 13:00 Kanpai jotzea auzoetako ermita guztietan. Udaleko balkoia apainduko dute eta ikurriña makil-erdira jarriko dute.
- ◆ 17:00 CaixaBank masters pilota txapelketa ikastolako frontoian. Sarrerak Kaia tabernan salgai. Aforo mugatua. Zuzenean emango dute ETB1en.
- ◆ 18:30 Erraldoi eta buruhandien erakusketa Aita Agirre kulturean. Irailaren 4ra arte egongo da ikusgai, 18:30etik 20:30era.

### Abuztuak 24, San Bartolome eguna

- ◆ 9:00 Dultzaineroen diana.
- ◆ 9:45 Udal txistularien diana.
- ◆ 11:00 Meza nagusia. Ez da txistularirik egongo eta udal korporazioak ere ez du parte hartuko.
- ◆ 18:00 CaixaBank masters pilota txapelketa ikastolako frontoian. Sarrerak Kaia tabernan salgai. Aforo mugatua.

### Abuztuak 30

- ◆ 11:30 Jubilatuen aldeko meza.

## Gaurve Asesores, Sanloko senior nesken taldeko babesle berria

Datorren denboraldian Sanloko emakumezkoen talde seniorrak Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatu du. Igor Lizarraldekin entrenatuko du taldea, eta Gaurve Asesores enpresa izango da taldearen babeslea. Sanloko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete euren kirol-proiektua babesten duten enpresa guztiei, haien babesik gabe, Sanlo ez litzatekeelako bideragarria izango: "Haien laguntzarik gabe ezin izango genieke aukera eman gure neska-mutilei Elgoibarren eskubaloian aritzeko".



## Dolmenen ibilbidea ezagutzeko bi bisita gidatu asteburuan

Karakatetik Irukurutzetaraino doan Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bi bisita gidatu egingo dituzte asteburuan. Lehenengoa gaur izango da, gaztelaniaz, eta bestea, domekan, euskaraz. Biak 10:00etan hasiko Karakateko aparkalekuan. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete 657 79 46 77 telefonora deituta edo [info@begibistan.com](mailto:info@begibistan.com) helbidera idatzita. Ibilaldian parte hartzeko gomendatutako gutxieneko adina: 7 urte.

# Zentzunez jokatzeko eskatu du Udalak

1989ko apirilaren 4an ur handiek Mendaron sekulako triskantza eragin zutenetik, lehen aldiz laga dituzte bertan behera santanak Mendaron, koronabirusaren pandemiagatik. Duela 31 urte, irailera atzeratu zituzten jaiak eta sekulako jendetza batu zela oroitzen dute herritarrek. Aurten, baina, horixe da eragotzi nahi dena: jende pilaketak, eta horregatik arduraz jokatzeko deia egin du Udalak.

- AINARA ARGOITIA-



## IÑAKI ARREGI, Mendaroko alkatea

♦ **Jairik ez da izango aurten koronabirusagatik. Erabaki zaila izan al da santanak bertan behera lagatzea?**

Covid-19ak eragindako pandemiaren bueltan hartu behar izan ditugun erabaki asko zailak izan dira, baita jaiena ere, baina argi dugu guztia gaine-

tik herritarren osasuna eta segurtasuna dagoela. Santanak oso egun bereziak dira mendarorantzako, baina aurtengoan ez da tokatzen. Aurten musukoa erabili, distantzia mantendu eta elkar laguntzea da egin behar duguna. Egundak bereziak dira herritarrentzako eta baita ostalarientzako ere. Guztiei besarkada bat bidali nahiko nieke eta adierazi behar gaituztenerako alboan gaituztela.

♦ **Egoera den modukua izanda ere, izango da jai-gosez izango denik. Zer esango zenieke?**

Jai gosez egotea normala da, are gehiago hilabeteak etxean eman ditugunean. Gainera gure bizitzeko era da. Baina esan bezala kutsatzeak ekidin behar ditugu, eta erantzukizunez eta arduraz jokatu, etorkizun hurbil batean jaiak normaltasunez bizi ditzagun. Ezinbestekoa da neurri oro betetzea, atzerapausorik eman ez dezagun eta desira dugun hori ahalik eta lasterren izan dezagun esku artean.

♦ **Jai batzordearen bigarren bileran adostu zen jairik ez izatea. Lehenengoan ekitaldi batzuk egiteko aukera ikusten zen, baina egoerak, bistan da, okerrera egin du. Aurreikusten duzue orain egin ezin diren jaiak atzeratzea, aurrez beste urteren baten gertatu izan den moduan? Edo aurreikusten duzue egin nahi ziren ekintzak geroago egitea?**

Aurten ez da Santa Ana jairik izango. Hasiera batean aurreikusten genuen ekintza sinbolikoren bat antolatzea eta lehen jai bileran proposamen ugari jaso genituen herriko eragileengandik. Egoerak, ordea, okerrera egin du eta argi genuen segurtasuna dela printzipio nagusia. Jai giroak askatasuna ematen digu, eta horrek prebentzio eta segurtasun neurriak alde batera uztea ekar dezake eta kutsatzeak suertatzea. Jai Batzordearen bileran bertan eragile guztiok erabaki genuen ekintza horiek baztertzea. Bai da Udalaren asmoa, etorkizun hurbilean, egoerak ahalbidetzen badu, kultur ekintzak antolatzea herriko bizitza dinamizatzeko, be-

tiere segurtasun neurri oro betez.

♦ **Beste zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Herritarrei dei egin nahiko nieke egun hauetan errespetuz jokatzera. Ez dago Santa Ana jairik, ez dago ekitaldirik, eta prebentzio eta segurtasun neurriak betez jokatu behar dugu. Ez pilatu taldean eta maskara erabili mesedez. Zuregatik, guztiongatik. Eskatu nahi diet baita ere inguruko herrietara ez mugitzeko. Inguruko herri askotan dira herriko jaietako egunak, nahiz eta festa ekitaldirik ez izan. Erantzukizunez jokatu, herrian gelditu eta neurriak errespetatu. Horrela, eta ez beste inola, izango dira Mendaro eta mendarorarrak seguru eta osasuntsu. Guztion artean lortuko dugu.



# Jairik gabeko urtean, akordua nagusi

Festazaleak dira eta santanetan ez dute hutsik egiten. Herritik kanpora bizi dira gaur Arritxu Urbieta, Añes Galarraga, Elena Zubiaurre eta Jexux Larrañaga, baina jai-usaina hasi orduko itzultzen dira herrira. Naia Aizpurua, Andoni Riaño eta Nahikare Urain gabe, berriz, jairik egon ere ez dago Mendaron. Txarangako kide da Andoni Riaño, baina txaranga kalean ez dabilenean ere ezaguna da haren tronpetaren eta dulzainaren hotsa herrian. Nahikare Urain eta haren kuadrillakoak Gazte Asanbladan ibilitakoak dira eta gaur ere parte aktiboa dira jai-batzordearen bileretan. Naia Aizpurua da hiruko horretan gazteena. Urainen kuadrillari erreleboa hartuta dabilza Aizpurua eta lagunak Gaztetxean, eta ia, haiek izan ziren Kuadrilla Eguna koloreztatzeko ardura beren gain hartu zutenak.

## NAIA AIZPURUA.....

“Mendaroko jaiak udako gauzarik onenetakoak dira niretzat, eta ziurrenik gainerako mendarorrentzat ere. Urtean zehar ez dugu gauza handirik izaten herrian, eta gustura hartzen ditugu jaiak. Kuadrilla Eguna da gehien gustatzen zaidana. Adin ezberdinetako jendea batzen da Kuadrilla Egunean: goizean goizetik hasten dira ekintzak eta egun biribila izaten da, bete-betea. Ez dugu ukatuko beraz pena handia daukagula aurten jairik ez delako izango, baina nik uste egoera zein den jakinda, normalena ere hori dela. Azkeneko agerrialdi hauen aurretik bageneukan itzaropen txiki bat ekintza batzuei eusteko (danborradari, bertso saioari...), baina ulertzen dut Udalak hartu duen erabakia. Herritar guztioi tokatzen zaigu arduraz jokatzea eta arauak betetzea. Baina bitxia egiten zait. Iaz izugarri inplikatu nintzen jaien antolakuntzan, eta data hauetan oso-oso urduri ibili nintzen, kamiseten kontuarekin eta txosnaren antolakuntzako ardurekin. Aurten geldi nago, eta hori bera ere harrigarria egiten zait”.



Naia Aizpurua (eskuinetik lehenengoa).



Añes Galarraga, 2018ko jaietan.

## AÑES GALARRAGA.....

“Zarautzen bizi naiz ni orain, eta horregatik, inoiz baino ilusio handiagoz hartzen ditut orain Mendaroko jaiak. Santanetan ikaragarri ondo pasatzen dut lagunekin. Mendaro herri txikia da eta beharbada horregatik gurasoek ere beranduagora arte uzten didate kalean egoten. Zarautzen gehienez 00:00etarako itzuli behar izaten naiz etxera, baina Mendaron 2:00ak arte ere utzi izan didate, eta oso ondo pasatzen dugu plazan, dantzan-eta. Umeen Eguna gustatzen zait gehien, guretzako ekintzak izaten direlako, baina gainerako egunetan ere oso ondo pasatzen dut. Aurten ez da jairik izango eta pena hartu dut, baina ulertzekoa ere bada. Jairik izan ez arren, itzuliko naiz Mendarora lagunak ikustera”.



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industriagunea, 9 - 20850 Mendaro  
943 756 112 / 636 497 48 - [www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Artisau aroztokia



Etxe-aldaketa zerbitzua



Salmenta eta banaketa



Eskarmentua eta kalitatea

**Egurra koronabirusari eta uda on guztioi!**  
**Zure ondoan gaituzu, behar duzunerako.**



Joseba Manteca, Alain Zulaika,  
Andoni Riaño eta Unai Mendikute.

## ANDONI RIAÑO.....

“Ezagutzen nautenek badakite festazalea naizela eta gustuko dudala inguruko jaietan ibiltzea ere, baina Mendarokoak bereziak dira. Musikari esker, nahikoa barrutik ezagutu izan ditut beste herri batzuetako jaiak ere, baina herriko jaien bestekorik ez dut topatu. Herri osoa elkarrekin plazan dantzan ikustea, Santa Ana egunean denok denekin poteoan ibiltze hori... oso berezia da, eta giro hori izugarri gustatzen zait. Aurtengoa penagarria ari da izaten. Motxaila Eguna ere bertan behera gelditu zen, ardo dastaketa ere ez zen egin eta beste gauza asko ere jausi dira. Motxaila Eguna konfinamendu hasieratxoan izan zen eta orduan sorpresa handiagoz hartu nuen jairik ez izatea. COVID-19aren kontua entzuten genuen orduan ere, baina urrutiagotik, baina hala ere, jairik gabe gelditu ginen. Baina ikusita pandemiaren bilakaerak okerrera egin duela, eta inguru gertuan ere agertu direla kasuak (nahiz eta Mendaron, momentuan, ez dagoen itxuraz kasurik), iruditzen zait zentzuzko erabakia izan dela jairik ez egitea. Aurten ez da tokatzen. Ondo iruditu zitzaidan Udalak ekintzaren bati eusteko egin zuen ahalegin hura, eta ondo iruditu zait atzera egin eta jairik ez dela izango esatea ere. Ekintzaren bat egin ahal izango litzateke beharbada segurtasun neurriak hartuta, baina ekintza hori bukatzean arriskua dago han egon diren denak tabernara elkarrekin joateko gero, eta ez gaude arriskuak hartzeko garaian. Bestetik, herri izango dira asko sufritzen ari direnak pandemia hau dela eta ez dela, eta iruditzen zait lehentasun handiagoa duela horiei laguntzeak. Ia ezinezkoa iruditzen zait Bezpera Egunean edo Santio Egunean kuadrillak bazkari edo afari baten bueltan ez batzea, baina iruditzen zait lagunarte txikian eta arduraz jokatura egin daitezkeela. Badakit Mendaron dena elkarrekin ospatu zaleak garela, baina aurten ez da tokatzen halakotan galtzerik. Positiboan pentsatu behar dugu, baina: aurten ez da jairik izango, baina datorren urtean bi aldiz hobeto pasatuko dugu. Nik neuk bai behintzat”.

## ARRITXU URBIETA.....

“Arrasaten bizi naiz ni orain, baina ni beti izango naiz mendararra, eta zer esango dizut nik ba Mendaroko jaietz! Munduko jairik onenak dira santanak. Lagunekin, familiakoekin... ospatzen ditut jaiak eta ilusio handiz joaten naiz herrira. Opor usaina ere orduan hasten da, santanekin batera. Santa Ana eguna da egunik bereziena mendararrantzat. Esango nuke arrasatearrentzat Maritxu Kajoi egunaren pareko zerbaite dela guretzat Santa Ana eguna, baina sarri astegunearan jausten da, eta ondorioz, zaila izaten dut joateko, lan-kontuengatik. Normalean Kuadrilla Egunerako joaten naiz, gehienetan asteburuan izaten delako eta izugarri ondo pasatzen dut. Sekulako oroitzapenak ditut. Aurten ez da santanarik izango. Sanjoanik ere ez dugu izan hemen, Arrasaten, baina ezin dut ukatu santanarik ospatu ezingo dugula jakiteak pena handiagoa eman didala. Baina zentzuzko erabakia iruditzen zait egoera honetan. Urte hobeak izan ditugu eta etorriko dira gehiago ere, eta gordeko ditugu indarrak hurrengorako. Zaleak gara, eta datorren urtean ere hortxe izango gara gu santanetan, dena emateko prest”.



Susana Gonzalez eta Arritxu Urbieta kuadrillakideak.



[www.electricidadperosanz.com](http://www.electricidadperosanz.com)  
[perosanz@euskalnet.net](mailto:perosanz@euskalnet.net)

**Egoera hauetan gudan jarritako konfidantza eskertzen dugu.**

Ibargain 17, AC behea  
Tel.: 943 202 268  
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5  
Tel.: 943 033 535  
20850 MENDARO



*Nahikare Urain, kuadrillako goitibehera gidatzen.*

## NAHIKARE URAIN.....

“Kuadrilla Eguna eta Santa Ana eguna gustatzen zaizkit niri jaietatik gehien. Egun biribilak dira. Egunez giro handia egoten da, eta batzuei gaua ere luzatzen zaigu gero. Adin ezberdinetako jendea batzen gara kalean egun horietan eta elkarrekin ibiltzen gara hara-hona, jai-giro ederrean. Aurten, bistan da, ezingo dugula jaietz ohi bezala gozatu, baina horrek datorren urtekoak are handiagoak eta hobeak izatea ekarriko du, eta seguru gehiago estimatuko ditugula. Gure Kuadrillan beti azkeneko momentuan ibiltzen gara play-back-erako entsegatzen eta goitibehera inguratzen, eta abantaila hori izango dugu: urtebete gehiago izango dugula datorren urteko jaietarako prestatzeko. COVID-19aren pandemia bete-betean dago orain eta ulertzekoa da erabakia, baina gauza bat eskatuko nuke: orain egin ezin diren horiek ez lagatzea betirako bazterrean, eta egoera baretzen denean antolatzeke kultur ekitaldiak, bertso-saiokak, antzerki emanaldiak eta besteak, behar diren segurtasun neurriak hartuta”.





**943 756 028**  
Caragorria, 32 - MENDARO

*Eskerrik asko,  
bezero!  
Egoera  
zailenetan ere  
beti  
zuen alboan.*








*Elkarrekin lortuko dugu!  
Animo Mendaro!*

**AUTOZERBITZUA**

**ELKAR**

**COVIRAN**



**Garai zailenetan ere mendarorrek!**

Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO  
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073

## JEXUX LARRAÑAGA.....

“Zeuk aipatu didazulako, bestela ez nintzen gogoratuko 89an santanak irailera atzeratu zirenik ujalengatik. 27 bat urte izango nituen nik orduan, eta ujalak ondo gogoan ditut, bai, baina irailean ospatu ziren jaietan ez nintzen izan. Santa Ana egunez, baina, urtero joaten naiz Mendarora. Nire aita zena egun horretako zen eta etxean beti izaten zen zerbait urtemuga herriko jai giroan ospatze aldera. Ospakizun bikoitza izaten genuen. Txikitatik daukat akorduan eguna. Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano... bertsolari horiek ibiltzen zirenetik akordatzen naiz ondoen, baina aurretikoak ere izango ziren, Lazkao Txiki bat esate baterako edo Uztapide bera baseliza ondoko harriztar gainetik pasatakoak direla esango nuke. Gure aitaren garaian, esandako azpeitiarrak ibiliko ziren bertsotan nagusi, eta festari jarraipena Garagartza auzoko Txikitonekua tabernan eman ohi zioten, erreka ondora bazkaltzera elkartuta (orduan, gaur ez bezala, gizonen girokoa zen santana eguneko bertsoto festa). Gerora entzunda nago Imanol Lazkanori esaten bere saio kuttunena Kilimon erreka bazterrean egiten zutenekoa zela; leku eta giro berezitatat jotzen zuen, eta estimatuenetan gordeta zituen Txikitoneko bazkalondoko saioak.

Gero, erreleboa Andoni Egañak ( Sebastian Lizasorekin batera gehienetan) hartu zuen eta baita festa horri buelta handi bat eman ere, nire ustez, gazteekin sozializatuz eta herri giroa zabalduz bazter guztietara. Kolorea eman zion, eta festa gaurkotu. Bertsoto lagun desberdinekin etortzen ikusi izan dugu Egaña, baina hutsik egin izan ez duena beti bera izan da. Egañak esan ohi zigun fijo-fijoak apaiza [Angel Basterretxea] eta bera zirela Santa Ana egunean. Azken urte mordoxkan Sebastian Lizaso beti ondoan duela ezagutu dugu.

*Santa eguna urria dator  
nahiz joko duen aldaba  
bizitzan alde tinko jokatu  
elkar zaintzarako bada.  
Herria maite dugunez gero,  
ezin eman besarkada  
zer da jaiegun baten galera  
etsiz birus tirakada  
hurrengo urtean ondo bagera  
bertan elkartuko gara*



*Jexu Larrañaga (ezkerretik lehenengoa) Santa Ana eguneko bertsoto-potean.*

Xelebrea den pasarte txiki bat kontatuko dizut. 2009 txapelketa nagusiaren aurretikoetan izango zen gertaera, 2007an edo 2008an hor nonbait, Egañak berak kontatu zigulako txapelketara begirako bi entrenamendu mota egiten ziharduela: bata, intentsiboa, eta bestea, extentsiboa. Batean, bakarka egin litezkeen jarduerak sartzen zituen, etxean norbere buruarekin landu beharrekoak, errimategia eta abar alegia; bestean, jendearekiko harremanak, hau da, denekin ibiltzeko, entzuteko, egoteko jarrera, herriz herri lantzekoa, eta bigarren hori, Mendaroko herriari dagokionez, hain estimatua duten bertako gazteekin buruz buru ibiltzean zetzan.

Ba orduko hartan, Santa Ana egunarekin bukatzen ziren urte hartakoak eta ordu txikiak arte gelditu ginen tabernaz taberna, denak itxi zituzten arte. Txaranga ere jo zuen bere azkena eta jende gehientsuenak etxerako bidea hartu zuen. Herriko gazteek plazak zuten txosnara jo genuen gero. Han jarraitzen genuen

**onroskillo**  
ESKOLA KANPAINA -%10  
Tel.: 943 033 631  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)  
Eskerrik asko,  
bezero!

**TAXI**  
Kontxi Urain  
MENDARO  
Mobila:  
**607 575 728**  
Eskerrik asko, bezero!

“egarriz”, zerbeza edateko prest, eta txosnetako tutuei eman ezin zutena eskatuz. Baiezko eta ezezko horretan, halako batean, ertzainen *furgona* bat plazaratu zen alde egin behar genuela aginduz. Jaiak amaitutzat jotzen zirela eta biharamuna lan eguna zela ohartarazi ziguten, eta alde egin ezean, Eibarko komisaldegian bukatuko genuela mehatxu egin ziguten ertzain batzuek. Hori entzunda, eta gazte batzuk atzeraka egin zutela ikusirik, Egañak bere burua eskaini zien ertzainei lasai ederrean; norbait eramatekotan bera eraman zezatela esan zien eta furgonan sartzeko zorian ere egon zen une batez. Ez zen asko falta izan, baina halere, adarra jotzeko aukerarik ez zuen galdu, han geundenon harridurarako. Demaseko bukaera izan zan. Kolosala”.

## ELENA ZUBIAURRE.....

“Galizian bizi naiz, eta normalean oporrak uztailean hartzen ditut beti, sanferminak eta santanak ez galtzeko. Beti izan naiz oso parranda zalea eta lagunekin egon zalea, eta santanetan ez dut hutsik egiten. Semea jaiotzen, hori bai, abuztuan hartu genituen oporrak eta sekulako tristura pasatu genuen Mendarora etorrita, inor ez gurelako topatu hemen. Ume-umetan Debara eramaten gintuzten uztailean, amamanera, eta ez ginen jaietan izaten. Azpilgoetakoak izanda, Andra Mari jaietarako itzultzen ginen herrira, eta Santio Egunez ere bai, dantza egitera, baina horixe. Hori bai, koskortu ginez geroztik ez dugu hutsik egin. Santanetatik egunik politena Santa Ana eguna izan da beti, dudarik gabe. Beti izan da egun zoragarria. 14 bat urte genituenean bazkari bat izaten zen Toki-Alain, baina gero, gazte talde txiki bat hasi ginen Leonera joaten kroketa batzuk-edo jatera, eta urteekin izugarritzko indarra hartu zuen hark. Egia esan Santa Ana eguneko oroitzapenak beti izan dira majadero xamarak, beti ospatu izan ditugulako txakolinarekin, baina akordatzeko nola igotzen ginen gora txarangakoeekin, Artetxerekin, Usetxerekin, Juanmi Arriolarekin... zoragarri pasatzen genuen. Gu hasi ginenean, Lisbeth Roteta, Leire Eizagirre, Leire Iriondo eta ni, gaztetxoak geu ginen gainera, eta oso ondo zaintzen gintuzten. Kuadrillen Eguna ere beti izan da berezia. Marmitakoa prestatzen genuen, jokoetan parte hartzen genuen eta playbakerako entsegatzera Andikotxe baserriko sabaira joaten ginen. Mundial pasatzen genuen, eta urteren batean, Flores familiara egin genuenean, irabazi ere egin genuen. Urteekin, umeak-eta etorri dira, eta Kuadrilla Eguna ez dugu orain lehen bezala ospatzen, baina Santa Ana eguna, bai, *religiosamente*. Ondoan daukadana galiziarra da, eta bertsoak ez ditu ulertzen, baina hark ere zoragarri pasatzen du han goian eta zortekoa naiz. Bertakotu da dagoeneko! Danborradan ere parte hartu izan dugu. Akordatzeko nola, lehen, urte bereko neskek irteten zirela kantinera eta gure kuadrillakoei tokatu zitzaizkionean planto egin zutela. Danborradan neskei parte hartzen laga ezean ez zirela kantinera izango esan zuten, eta onartu zieten. Orduantxe hasi ginen Ziortza Urbieta eta ni danborradan jotzen, gainerako kuadrillakideak kantinera izan ziren urtean. Zer gehiago esango dizut ba! Santanetan zoragarri pasatu dugula beti eta aurten jairik izango ez den arren, txakolina edan eta txorizo-muturra jan gabe ez garela geldituko. Etxean bada ere, ospatuko dugu Santa Ana eguna”.



*Elena Zubiaurre, ezkerretik hasita bigarrena, lagun artean.*



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA  
CNCra AUTOMATIZAZIOA.  
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA  
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



**SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.**

ESSER Industrialdea SE-S • 20850 Mendara (Gipuzkoa)  
Tel: 943 741 858 / 639 710 183 • Fax: 943 742 346  
www.santosypatxi.com • contacto@santosypatxi.com

**TXIRRISTAKA  
TABERNA**

1985

MENDAROTZABAL I  
MENDARO

TEL: 943 736 139



# “Arima ukitu eta barruan daukaguna leuntzea eta ulertzea nahi izan dut”

## ▶ IRATXE GARATE

ESTETIZISTA ETA TERAPEUTA

Iratxe Garate (Elgoibar, 1986) estetizista eta terapeuta da. Terapia natural eta integratiboak lantzen ditu, irudi pertsonala zaintzeko. Bere lan ildo oso mundu zabala dela dio, eta etengabeko formazioan dihardu, beti gauza berriak ikasten. Idaztea ere gustuko du. Bizitzan asko idatzitakoa da, idazteak barneko korapiloak askatzen laguntzen diolako. Oraingoan liburu batekin datorkigu, eta horrekin bere ametsetako bat bete duela aitortu du.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ ‘Las mariposas de la feminidad’ liburua idatzi duzu. Zer jaso duzu bertan?

Gure pentsamenduek zer eragin daukaten gure bizitzan. Hau da, emakumearen gorputza nola ulertu behar den eta nola eragiten duten hilerokoak eta ilargiak gure emozio, intuizio eta bizitzan. Azaldu nahi izan dut gure edertasunari nola begiratu behar zaion, maitasunez. Era berean, saiatu naiz azaltzen nola bereizi behar diren gure arimak eta buruak nahi dutena. Horrez gain, egunerokotasunean zainketa holistiko eta kontzientze bat egiteko paletak ere eman ditut liburuan.

### ◆ Zerk bultzatu zaitu liburu hau idaztera?

Idaztea beti izan dut gogoko, eta asko idatzi dut, batez ere, nire barneko korapiloak askatzeko. Liburua idaztearen arrazoiak hainbat izan dira, baina bereziki, ingurukoek eta nire pazienteek bultzatuta animatu naiz idaztera, emakumeei era desberdin batean laguntzeko, eta baita ere, nire ametsetako bat betzeko, liburu bat idaztea amestu izan dudalako beti. Gustura geratu naiz emaitzarekin, baina nahiko perfekzionista naiz eta seguru nago denbora pasatu ahala aldaketaren bat egingo diodala liburuari. Probako lehen liburua eskuetan hartu nuenean, barrua dardarka hasi zitzaidan. Beldurra eta ilusioa neurri berean sentitu nituen une horretan.

### ◆ Nori zuzendutako liburu da?

Emakumeei zuzenduta dago bereziki, baina gizonezkoek ere asko lagundu diezaieke, emakumea piskatxo bat hobeto ulertzeko.

### ◆ Arimek laguntzeko liburu omen da. Zer esan nahi duzu horrekin?

Nire ustez ariman daude gizakia osatzeko erantzun gehienak. Liburu honekin nahi izan dut arima ukitu eta barruan daukaguna leuntzea eta ulertzea.



### ◆ Zure arimaren zatitxo bat liburu horretan dagoela irakurri dizugu sare sozialetan. Liburu autobiografikoa al da?

Nire esperientzia pertsonal eta profesional batzuk partekatzen ditut liburu honetan, antzerako egoeretan egon direnek bizitakoa hobeto barneratu dezaten, eta ulertzeko denak duela arrazoiaren bat. Nire lanbidearekin guztiz lotuta dago liburua. Edergintzan eta emakumearen terapian egiten dut lan, eta nire etorkizuneko nahia biak batera lantzea da, niretzako ez dagoelako kanpo edertasunik barruko edertasunik ez badago, eta alderantziz.

### ◆ Gaztelaniaz idatzi duzu, euskalduna zaren arren. Zergatik?

Nire publiko gehiena erdalduna delako, eta euskaraz idatzi banu, publiko murriztagoarengana iritsiko nintzatekeelako. Gainera, etorkizunera begira, Hegoamerikara zabaldu nahi nuke liburua, nire gaiak hango emakumeei asko lagunduko diela sinisten dudalako.

### ◆ Non eskuratu daiteke liburu?

Hasiera batean nire Facebookeko edo Instagrameko kontuetatik eskatu ahal izango da. Web orria ere egiten ari naiz, baina oraindik denbora beharko dut horretarako. Aurrerago Amazonen ere jarriko dut liburua salgai.



**LANA.....**  
**Eskaintza**

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dugu. Lanaldi osoko kontratua eskaintzen da. Interesatuok bidali curriculumarekap.gipuzkoa@gmail.com helbidera.

Adinekoak zaintzeko gurekin biziko den etxeko langilea behar dugu, irailetik aurrera. Ahal dela euskalduna  
 ☎ 615 006 733

**Eskaerak**

Emakume arduratsua, esperientziaduna eta erreferentziekin adinekoak zaintzeko prest dago. Etxeko langile moduan edo asteburuetan: zaintza lanak, garbiketak, botikak prestatzea, sukaldatzea, lisaketa... Berehala hasteko prest. ☎ 632 355 103

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. ☎ 692 706 581

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
 ☎ 685 386 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Zaintza lanetarako sozio-sanitario titulua daukat.  
 ☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, eta asteburuetan ere bai.  
 ☎ 631 611 201

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat baserriko lanetan, ostalaritzan eta eraikuntza-lanetan.  
 ☎ 632 264 076

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gaez ere bai.  
 ☎ 690 134 485

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
 ☎ 631 259 997

Arreta sozio-sanitarioko ikasketak egin nituen eta pertsonen zaintzan jardun naiz azkenaldian. Hala ere, beste lanetan aritzeko prest nago. Euskalduna naiz. Asteleheneetik barikura, 11:00etatik aurrera.  
 ☎ 688 725 715

**ETXEBIZITZAK.....**  
 Bi logelatako etxea alokatzen dut Santa Klaran.  
 ☎ 645 048 110

**BESTELAKOAK.....**  
 Herritarren batek Haritz dantza taldeko erroparen bat baldin badauka etxean, deitu mesedez.  
 ☎ 686 633 178

**KINTOAK.....**  
 1960ko kintoen ospakizuna 2021era atzeratzea erabaki du antolakuntza batzordeak.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiari erreturatua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
 Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erreturatua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Sectorial de Colegios de Administradores de Finanzas  
 Enkaidetza Sektoreko Administraziozainakentzako Kontseilua

**Duela egun batzuk bilera bat egin genuen, eta eskari-galderen atalean jabe batek eskailera margotzeko eskatu zuen, egoera tamalgarrrian zegoela nabarmenduz. Askok baietza erantzun zioten eta eskailera egokitzeko eta margotzeko erabakia hartu zuten. Erabaki hori baliozkoa den jakin nahi nuke.**

Higiezina eta haren zerbitzuak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren obrak eta apaintura-baldintzak betetzeko beharrezkoak direnak nahitaezkoak dira, eta ez dute jabeen batzarren alde aurreko akordiorik behar. Obra horiek ez dute Administrazioak ezarritakoak izan behar; jabeek eska ditzakete. Eskaera hori batzarrean edo batzarretik kanpo egin daiteke, lehendakariari zuzendutako idazkiaren bidez. Jabe batek, beharrezkoa ikusten duelako, jabeen batzar baten barruan eta galde-eskaeren txandan eskatzen badu ataria margotzeko, kontua ez da batzarrek beharrezkoa ez den obra bat egitea adosten duen ala ez, baizik eta beharrezkotzat jotzen duen obra egiteko eskaera aintzakotzat hartzen duen ala ez. Jabeen batzarrek ezin du une horretan erabaki eskaera bidezkoa den ala ez, eta nahitaez erantzun behar dio.

**Gomendioa. Horrelako egoeretan eskaera aintzat hartu behar da, eta jarduketak horiek ordaintzeko modua Jabeen Batzarrek adostu behar du, alde aurreko deialdi baten bidez. Deialdi horretan, alderdi hori gai-zerrendako puntu batean sartu behar da.**



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*


**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
 San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Aimar**, astelehenean 3 urte bete zenituelako. Gurasoen, familia-koen eta lagunen partez.



Zorionak, **Luken**, uztailearen 28an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Super zorionak, **Andoni** eta **Estitxu!** Besarkada handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Irati** eta **Maddi**, domekan urte pila bat egingo dituzuelako. Patxo handi bana familixakuon partez.



Zorionak, **Amets** eta **Ian**, uztailearen 27an 5 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Eneko**, gaur 5 urte bete dituzulako! Etxekoan eta bereziki, Nikoleren partez. Muxu potolo bat.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

24 BARIXAKUA	25 ZAPATUA	26 DOMEKA	27 ASTELEHENA	28 MARTITZENA	29 EGUAZTENA	30 EGUENA	31 BARIXAKUA
Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>
Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean ---	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gavez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturegunea, 3, 3. ezk.





# 2020ko elektrogailuen Renove Plana

130€<sup>ra</sup> arteko dirulaguntzak! Agortu arte.



# MILAR BIRE

Ubitarte, 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)



## DESKONTU HANDIAK!

- Haurren izaretan
- Sehaska-koltxoietan
- Haurrentzako iragarki laburretan...



Etorri eta ikusi umeentzako produktuetan ditugun deskontuak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENen astekarian  
edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

**943 743 704**

**688 634 044**



BARREN

Alta Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR



**Cristina Garcia 943 742 950**

Estetika eta Terapia Naturalak

Abuztuaren 21era arte lan egingo dugu!  
Gure ordutegia 09:00etatik 19:00etara izango da!  
Aurrez aurretiko zitekin egingo dugu lan.

*Mila esker bezero guztiei  
emandako konfiantzarengatik.*

Errosario kalea, 19 - Elgoibar - [cgestetika@gmail.com](mailto:cgestetika@gmail.com)

# GERTU

Gestora de Cooperativas

# Iriondo eraikina

Pedro Muguruza, 2. ELGOIBAR



Eraikitzen:

**B**ANTTON BILBAO  
GRUPO



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.
- Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.

Informazio Gehiago

📞 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - [www.gertugestora.com](http://www.gertugestora.com)